



## ERRIKO AGINTARIAK ETA DANTZAK

LEKUONA'tar Manuel'ek

Erriko Agintariak eta Dantzak elkarrekin lotu-loturik arkitzen ditugu gure Errien Edesti-istorian. Bi eratan loturik: Dantzak zaitu ta babesten zituztela, eta Agintariak berak dantzari zirala. XVII gizaldian oraindik gure Errietan Agintariak berak dantzatzen ziran, Erri guziaren aurrean, Erriko Jaietan, Jaietako «número» bat bezela; eta ez Erri-Agintariak bakarrik, baita aiekin batean Apaizak ere, *ambos Cabildos*, orduko paperak dioten bezela.

Oyartzun'en, Zimitorioan—San Juan Basilikaren aurrean—ateratzen zuten bi Kabildoak dantza bikote ori.

Bañan, ortaz gañera jakiña da, Erriko Agintariak ardura izan dutela beti, zenbait jaitan Errian dantzari-

taldeak izan ditezen, erriarentzat jolas ta ikusgarri Erriko Plaza Nagusian, zirala makil-dantzariak, ezpata-dantzariak, aureskulariak; zirala Erriko Jaietan, zirala Korpus-eguneko Elizjira-Prozesioetan—51 ezpata-dantzari dantzatu ziran, Korpusetan Oyartzun'en, 1682'gn urtean, dantzarien egun artako alboka Erriak ordaintzen zuala.

Ortaz gañera, Erriko Jaietan gazte-jendeak danbolin-soñuan egiten zuten dantza bera ere, Erriko Agintariak Kontzejuko balkoi nagusitik begira zeudela egin oi zan beti.

Dantza oiatarako, batez ere, eraturik egon oi ziran gañera Erri guztietan, Erriko lekuri eroso ta egokie-nean, Plazak, Pelota-plazarekin batean: dana, Erriko



Agintarien eginkizun berezi bezela, Erriaren jolasetarako. Eta nolako Plazak! ikusi besterik ez dago; bai Erri aundietan—dala Donostia, dala Irun, Oñati, Mondragon, Elgoibar, Oyartzun, Errenteria bera...—bai Erri txikietan—dala Alzaga, Orendain, Abaltzikketa...

Gure Erriak—Erriko Agintariak—ardura aundi izan dute beti gai ontan—Erriarentzat «entretienigarriak» antolatzenko gai ontan—salbo-ta Erroma'ko Agintariak *panem et circenses* («ogia ta jolasak») antolatzen zituzten bezela.

— — —

Bigarren gauza onek ez gaitu gaur orrenbeste aritzen. Bañan lenengo beste orrek? Agintariak berak dantza ateratze orrek?

Gaur arritu egiten gaitu, batez ere, Erriko Agintariakin batean, Erriko Apaiz Jaunak berak ere dantza-egiten zutela jakiteak. Bañan ez ginduzke orrenbeste arrituko, dantza-gauzari berari sakon xamarretik begiratuko bagenio.

— — —

Erritar guztiok, Erriari diogun zorra, garai artan gaur baño askotaz ere sentituago sentitzen zuten. Erriko oiturak, alegia, Erriko oiturak sakon-sakon sarturik zeuden orduan erritar guztien izaera osoan. Ez azaleko erromantizismo bat bezela; izaera osoan zuztartutako gauza sakon bat bezela baizik. Eta Agintariak Erriari zioten zor bat orixe zan: jolasak eratzea—erdaldunen *solaces*, erromatarren *panem et circenses*. Eta, citura, zanez, ez nolana jolasak eratuaz; beren buruak ere Erriaren entretienigarri dantzan azalduaz. Erraiari zioten zor ori, XVII gizaldian oraindik, ondotox betetzen zuten gure orduko Agintariak, bai Errikoak, bai Elizakoak. Oiturazko zor santu bat bezelaxe.

— — —

Norbaitek pentza lezake «rito bat bezela»: erlijiozko rito bat. Ez det uste. Zor bat, «gizarte-zor bat bezela» baizik.

Gauza onen argigarri, Elizaren aldetik ba zan orduan beste oitura bat.

— — —

Gauza jakiña da, ez lñauteritan bakarrik, baita San Juan'etan ere mozorroak izaten zirala errietan (1). Mozorroak, erriko jende xumeak eratu izan ditu beti, berak bere kasa. Bañan mozorroai ere, Agintariak «kategoria» zenbait aitortzen zieten, beren jolasakin «jendea entretienitzen zutelako». Ala diote orduko Erriko Paperak. Eta Elizak berak ere egiten zien mozorroai olako zerbait aitormen. Jai aietan Elizan egiten zan opillezko «ofrenda», Oyartzun'go Eliz-gizoak berak oso-osorik mozorroai opa izaten zieten. Ortarañoxe. Eta jakiña da, mozorroak, ezer bada-ta, dantzariak izaten zirala, eta dantza-ta-dantza, entretienitzen zutela jendea, gaur oraindik Zuberoa'ko Dantzari ta Xaribari-zaleak egin oi duten bezela.

Eliza bera ikusten degu, beraz, XVII gizaldian Dantzariak aitormen au egiten. Gero etorri ziran, nunbait, XVIII gizaldian, gure Aita Mendiburu'ren garaiko iritzi estu ta murrizak Dantzarien kontra—Aita Larramendi'rengan izan bait zuten ezik gure dantza jator aiek apolojeta defentsazalle jator bat, jakiña dan bezela. Ez, ordea, berriz esanda ere, dantzak erlijiozko rito bat ziralako, Erriarenganako «zor» eder bat bezela baizik. Orregatik, ain xuxen, Apaizak berak ere etziran lotsatzen, Erri-Agintari Jaunakin batean, San Juan eta San Pedro'z erritarren dantza orokarrari asiera ematen, berak ere, serio-serio. Erriko Plazan dantza egiñaz eta ola Erriari zioten zor ori aitortuaz.

— — —

Zer dantza-mueta zan, ordea dantza ura? Ortan bait dago, besteak beste, problema onen giltzarria.

Ba da oraindik Nafarroa'n dantza-era bat—itzal aundiko dantza—edozein gizon formalek seri-serio dantza lezakena: Mutil-dantza, Karrika-dantza... Ingu-rutxo bezela, Plaza guzian zear egiten dana. Gaur oraindik, Erriko Gizon guztiak, Alkate Jauna buru dutela, Nafarroa'ko Lanz'en lñauterietan dantzatu oi dutena. Gizasemeak bakarrik... Alkate Jauna ta Justiziakoak aurren-esku dirala... Plazaren inguru guzian zear... Olako zerbait bait da, gañera, Baztan'go Mutil-

(1) Ikus nere «Del Oyartzun antiguo» 146'gn or.

dantza ere; itzal eta errespetu aundiko edozein Jaunek dantzatzeko neurri-neurrikoa.

Olaxe egiten da sinistagarriago, Erriko Agintarien eta Apaizen arteko, San Juan eta San Pedro jaietako Dantza.

— — —

Bego, beraz, ontan gauza: gure Agintariak, Errietan dantzarako Plaza ederrak eratuaz, eta besterik dantzaziaz gañera, berak dantzaten ere zirala, antziñako urte aietan... oitura oiek, gaur, «arrigarri» bilakatzeraino galdu badira ere.

## LA AUTORIDAD Y LAS DANZAS POPULARES

(RESUMEN)

*Nuestras autoridades locales han cuidado siempre de proporcionar a sus súbditos el solaz de la danzas, tanto procurando equipos de dantzaris como danzando ellos mismos en las fiestas populares a modo de un número más de ellas. Y no sólo el cabildo civil, sino también el eclesiástico.*

*En 1662, en Oyarzun, ambos cabildos danzaron por las fiestas de San Juan y San Pedro, en el «cimiterio» de la iglesia, frente a la basílica de San Juan.*

*Asimismo, en 1682, en la procesión de la festividad del Corpus, figuraron 51 dantzaris, costeados por el municipio.*

*El baile popular de las fiestas patronales, por su parte, era presenciado por las autoridades desde el balcón de la casa concejo.*

*Desde luego, para tales solaces y regocijos populares se ha contado siempre en todos los pueblos con plazas adecuadas, presididas por la casa concejil, tanto en poblaciones mayores (San Sebastián, Tolosa, Vergara, Mondragón, Oñate, Elgóibar, etc.) como en las pequeñas (Alzaga, Baliarrain, Orendain, Abalcisqueta, etc.)*

*Hoy nos extraña que, junto con las autoridades civiles, danzasen los eclesiásticos. Quizás se crea que la danza constitula entonces un rito religioso. Rito religioso no lo creemos, pero sí un tributo social religiosamente pagado por ambas autoridades al pueblo. La conciencia cívica en aquellas fechas era muy honda en todas las clases sociales, y todo lo que fuese una «costumbre popular» se cumplía con toda seriedad como un deber sagrado. Tal creemos la explicación del caso. Desde luego, nada de exhibicionismo folklórico ni de romanticismo de ningún género. Aparte de que las propias danzas referidas eran de una sobriedad muy grande, sin cabriolas ni contoneos de ninguna clase, sino sólo pasos rítmicos en grave marcha alrededor de la plaza pública, al estilo de la mutil-dantza del Baztán, o de las danzas de las autoridades y vecinos de los carnavales de Lanz, en Navarra.*

